# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-5331

7/2004 LEGEA, irailaren 30ekoa, Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko Legearen bigarren aldaketarena.

Eusko Legebiltzarrak honako Lege hau onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

IRAILAREN 30EKO 7/2004 LEGEA, DROGAMENPEKOTASUNEN ARLOKO AURREZAINTZA, LAGUNTZA ETA GIZARTERATZEARI BURUZKO LEGEAREN BIGARREN ALDAKETARENA

ZIOEN ADIERAZPENA:

Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeko 37.1 artikuluan, Eusko Jaurlaritzak hiru urtean behin egin behar duen Drogamenpekotasunen Plana aipatzen da. Plan horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek epe jakin batean aurrezaintza, laguntza eta gizarteratze arloan burutu behar dituzten programak eta ekintzak jasoko dira modu koordinatu eta orokorrean.

Plan horiek 1990etik izan duten bilakaerak, dena dela, planen indarraldia luzatzea eskatzen du; izan ere, hiru urtean behin plan bat sortzeak esan nahi du lehenengo urtea, funtsean, abiatzeko eta egokitzeko aldia izaten dela eta hirugarren urtean, batik bat, hurrengo plana egiteari eskaintzen zaiola arreta guztia.

Planaren indarraldia luzatzeak, gainera, egokitzeko eta hobetzeko mekanismoak sartzeko aukera emango luke, bai eta Drogamenpekotasunen IV. Planaren inguruan 2000ko apirilaren 14an egindako osoko bilkuran Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 14. ebazpena betetzea ere. Ebazpen horretan, Drogamenpekotasunen Plana Estatuko eta Europako planen egutegietara egokitzeko eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari.

Kontseilu Europarra Helsinkin bildu zen 1999ko abenduan, eta drogaren aurkako borrokaren arloko europar estrategia (2000-2004) onartu zuen. Euskal Autonomia Erkidegorako bosturteko plan bat onartzeak, beraz, aldizkakotasun berera egokitzea ekarriko luke.

Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeko 41.4 c) artikuluan adierazten denez, Drogamenpekotasunen Aholku Batzordearen zereginen

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-5331

LEY 7/2004, de 30 de septiembre, de segunda modificación de la Ley sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente Ley:

LEY 7/2004, DE 30 DE SEPTIEMBRE, DE SEGUNDA MODIFICACIÓN DE LA LEY SOBRE PREVENCIÓN, ASISTENCIA E INSERCIÓN EN MATERIA DE DROGODEPENDENCIAS

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

El artículo 37.1 de la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias, hace referencia al Plan de Drogodependencias que con carácter trienal ha de elaborar el Gobierno Vasco, en el que se recogerán de forma coordinada y global los programas y las acciones de prevención, asistencia e inserción que hayan de realizarse por las distintas administraciones del País Vasco.

La evolución de los planes desde 1990 recomienda aumentar su período de vigencia, dado que la dinámica de crear un plan cada tres años supone que el primer año sea esencialmente un período de arranque y adaptación, y el tercer año centre sobre todo la atención en la elaboración del siguiente plan.

La prolongación en el tiempo del Plan de Drogodependencias permitiría introducir mecanismos de adaptación y mejora, así como seguir la Resolución número 14 aprobada por el Parlamento Vasco en sesión plenaria celebrada el 14 de abril de 2000, en relación con el IV Plan de Drogodependencias, que instaba al Gobierno Vasco a adaptar el Plan de Drogodependencias a los calendarios de los planes estatal y europeo.

El Consejo Europeo se reunió en Helsinki en diciembre de 1999, y aprobó la Estrategia europea en materia de lucha contra la droga (2000-2004). La aprobación de un plan quinquenal para la Comunidad Autónoma del País Vasco supondría, por tanto, la adaptación a la misma periodicidad.

Por otro lado, el artículo 41.4 c) de la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias, indica que entre las funciones del Consejo Asesor de Drogodependen-

artean, Drogamenpekotasunen Hiru urteko Planaren aurretik aginduzko txostena idaztea dago. Hori dela eta, agindu hori ere aldatu egin behar da, plana hiru urterako izango dela aipatzen baitu.

*Artikulu bakarra.*

1.– Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeko 37. artikuluaren 1. paragrafoak ondorengo idazkera izango du:

«Eusko Jaurlaritzak Drogamenpekotasunen Plana egin eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio osoko bilkuran edo batzordean eztabaidatzeko komunikazio gisa, bost urtean behin, onar dezan. Plan horretan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek epealdi jakin batean burutu behar dituzten programak eta ekintzak jasoko dira modu koordinatu eta orokorrean. Jarduera horiek aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeko arlokoak izango dira, eta arlo horietan diharduten administrazio eta elkarteei aukera emango zaie, plana prestatu bitartean, beren iritziak azaltzeko. Nolanahi ere, ahalegina egingo da plana Estatuko eta Europako planen epe bererako izan dadin.

Eusko Jaurlaritzak urtero bidaliko dio txosten bat Legebiltzarrari planaren ebaluazioarekin».

2.– 41. artikuluaren 4. paragrafoko c) idatz-zatiak ondorengo idazkera izango du:

«Lege honetako 37.1 artikuluan aipatzen den Drogamenpekotasunen Bosturteko Planaren aurretik derrigorrez eman behar den txostena idaztea».

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urriaren 14a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

cias se encuentra la de emitir informe preceptivo previo del Plan Trienal de Drogodependencias, por lo que procede asimismo modificar este precepto, por cuanto alude al carácter trienal del plan.

*Artículo único.*

1.– El apartado 1 del artículo 37 de la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias, queda redactado de la manera siguiente:

«El Gobierno Vasco elaborará y remitirá al Parlamento Vasco como comunicación para su debate en pleno o comisión, para su aprobación, un plan de drogodependencias con carácter quinquenal, en el que se recogerán de forma coordinada y global los programas y las acciones de prevención, asistencia e inserción que hayan de realizarse por las distintas administraciones del País Vasco durante el periodo que se determine. En el proceso de elaboración del plan se dará audiencia a las distintas administraciones y entidades que actúen en el campo de la prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias. En cualquier caso, se procurará que el plan coincida en el tiempo con los planes estatal y europeo.

El Gobierno Vasco remitirá anualmente al Parlamento una memoria con la pertinente evaluación del plan».

2.– El párrafo c) del apartado 4 del artículo 41 queda redactado de la manera siguiente:

«Emitir informe preceptivo previo del Plan Quinquenal de Drogodependencias a que se refiere el artículo 37.1 de esta Ley».

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.